



**ZUMAIAKO HIRIGINTZA ARAUEN 4. ALDAKETA
PUNTUALAk, OIKIA 19 HIRI AREA,
INGURUMENEAN DUEN ERAGINAREN EBALUAZIO
BATERATUAREN AZTERLANA**

Apirila 2012



**ZUMAIAKO HIRIGINTZA ARAUEN 4. ALDAKETA PUNTUALAk,
OIKIA 19 HIRI AREA, INGURUMENEAN DUEN ERAGINAREN
EBALUAZIO BATERATUAREN AZTERLANA**

XEDEA: EGILETZA ZIURTAGIRIA

Leire Retegi

**Ingurumen-Inpaktuko Areako
Teknikaria**

Antonio Bea

Antonio Bea, Ekos Estudios Ambientales S.L.U-ko administrariak ziurtatzen du “Talde Idazlaria” atalean aipatzen diren teknikariek azterlan hau egiten parte hartu dutela.

ZUMAIKO HIRIGINTZA ARAUEN 4. ALDAKETA PUNTUALAk, OIKIA 19 HIRI AREA, INGURUMENEAN DUEN ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUAREN AZTERLANA

Aurkibidea

Orrialdea

1. SARRERA.....	4
1.1. TALDE IDAZLARIA	4
2. ALDAKETA PUNTUALAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HORIEK LORTZEKO AZTERTUTAKO ALTERNATIBEN DESKRIPZIOA.....	5
2.1. JARDUKETA-EREMUA ETA DENBORA-EREMUA	5
2.2. ALDAKETA PUNTUALAREN HELBURUAK. INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK.....	6
2.3. KONTUAN IZANDAKO ALTERNATIBEN ANALISIA ETA HAIETAKO PROPOSAMENAK.....	7
2.4. ALDAKETA PUNTUALEKO PROPOSAMENAK	11
2.5. EGIKARITZEKO FASEAK	14
2.6. HERRITARREN PARTE-HARTZEA.....	15
3. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA	15
4. ALDAKETA PUNTUALAREN ERAGINPEKO EREMUAREN DIAGNOSTIKOA	15
4.1. ALDERDI GEOFISIKOAK.....	16
4.1.1. Geologia eta Geomorfologia	16
4.1.2. Hidrogeologia.....	16
4.1.3. Edafologia.....	17
4.1.4. Gainazaleko Hidrologia eta Sare Hidrologikoaren Kalitatea.....	18
4.1.5. Lurzorua Kutsa dezaketen Jardueren Kokalekuak	18
4.2. NATURA-ALDERDIAK	19
4.2.1. Landaredia.....	19
4.2.2. Interes komunitarioko habitatak	20
4.2.3. Fauna	21
4.2.4. ESPAZIO BABESTUAK.....	21
4.3. ESTETIKA ETA KULTUR ALDERDIAK	22
4.3.1. Paisaia.....	22
4.3.2. Ondare arkeologikoa eta historiko-arkitektonikoa	23
4.4. GIZA HABITATA.....	23
4.5. EGOERA AKUSTIKOA	24
4.6. ARRISKU NATURALAK	25
4.7. BIBLIOGRAFIA	26
5. AUKERA EZBERDINEN INGURUMEN AZTERKETA	27
6. ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	28
6.1. PLANAREN HELBURUEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA	28
6.2. ZUMAIKO HIRIGINTZA ARAUEN 4. ALDAKETA PUNTUALEKO JARDUKETEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA.....	29
7. NEURRI BABESGARRI, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA	36
7.1. INGURUMEN-ERAGINA EBALUATZEAREN ONDORIOZKO NEURRI ZUZENTZAILEEN IDENTIFIKAZIOA PLANGINTZAZ GAINEKO MAILAN.....	36
7.2. PLANAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA	36
7.3. NEURRI BABESGARRI, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEAK	36
7.3.1. Egikaritzea-Fasea: Obra Aurrekoa	36
7.3.2. Egikaritzea-fasea: lanen fasea	39
7.4. PROPOSATUTAKO NEURRIEN KOSTUAREN ZENBATESPENA	40

7.5. PROPOSATUTAKO NEURRIEN BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK	40
8. IKUSKAPEN-PROGRAMA	41
8.1. KONTROL-ZIURTAGIRIAK.....	41
8.1.1. Obra aurreko eta obra-faseari dagozkion kontrol-ziurtagiriak.....	42
8.2. IKUSKAPEN-PROGRAMAREN GARAPENAZ ARDURATZEN DEN UDAL-ERAKUNDEA	43
9. LABURPENA.....	43

1. SARRERA

Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlan hau (IEEB azterlana) Zumaiako udalak eskatuta idatzi da. Txosten honen helburua Zumaiako Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualak (Oikia 19 Hiri Area (HA), ingurumenean izango dituen ondorioak identifikatzea, deskribatzea eta ebaluatzea da.

IEEB azterlan honen edukia:

- Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinaren arabera egituratzen da.
- Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzak 2012ko otsailaren 13an egindako Erreferentziako Dokumentua, eta gainerako txosten sektorialak jasotzen ditu.

IEEB azterlana plan edo programek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko 3.2.a artikuluan xedatutako prozedura jarraituko du.

1.1. TALDE IDAZLARIA

Ingurumen Eragineko Ebaluazio Bateratuaren Azterlana idazteko, **Ekos Estudios Ambientales S.L.U.**-k **Antonio Bea** Biologiako doktorearen zuzendaritzapean lan egin duen taldea antolatu du.

Honako hauek osatzen dute taldea: **Yves Meyer**, Biologian lizentziatua, eta **Leire Retegi**, Ingurumen Zientzietan lizentziatua.


2. ALDAKETA PUNTUALAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HORIEK LORTZEKO AZTERTUTAKO ALTERNATIBEN DESKRIPZIOA

2.1. JARDUKETA-EREMUA ETA DENBORA-EREMUA

IEEB Azterlan honen **jarduketa-eremua** Zumaiaiko Hirigintza Arauen Oikia 19HA eremua da.



Kokapen mapa



*Oikiako 19 HA eremua 6 egikaritze unitatetan (EU) mugatuta gelditzea proposatzen da.
(19.3 gauzatua dago)*

Zumaia Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualak ez du **epe** finkorik.

2.2. ALDAKETA PUNTUALAREN HELBURUAK. INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK

Hirigintza-planaren helburu estrategikoak hauek dira:

- o Lur ez urbanizagarri den lursail bat hirilur klasifikatzea (3.100 m²), beharrezko neurri eta baldintzak betetzen duen eskola ekipamendu egokia ezartzeko. Proposatutako lursaila 19.4 EU da. Egun lur sailaren klasifikazioa nekazaritza eta abeltzaintzarako landazabala da.
- o Hiri-area barruan hutsik geratzen den lursaila urbanizatu hiri-eremuari kohesioa emateko (19.5 EU). Esku-hartze honekin auzotarren gutxieneko zuzkidura eskaera bete nahi da, baita, etxebizitzaren arazoaren aurrean, babes publikodun etxebizitzak

eskaini ere. Etxebizitzak iparekialdean kokatuko dira eta erdigunea eskola zaharraren eraikinaren etorkizunaren arabera antolatuko da.

- o Indarrean dagoen legeria aplikatzea: gutxieneko estandarrak eta baldintzak betetzea bermatzea, hala nola, espazio libre, berdegune eta babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko azalerak.

Ingurumen arloko helburuei dagokienez, hirigintza txostenak ez du propio ingurumen helbururik jasotzen, hauek txostenean zehar ikutzen dira: oinezkoentzako mugikortasun egokia bermatu, hiri bilbe trinko bat diseinatu, bizitzeko esparru eroso bat eratu berdegune eta aparkalekuekin, herrigunea beharrezko ekipamenduez hornitu jendea kanpora ateratzea ekidituz. Hau da, Oikia-ko hiri-ingurumen kalitatea hobetzea nahi da.

2.3. KONTUAN IZANDAKO ALTERNATIBEN ANALISIA ETA HAIETAKO PROPOSAMENAK

Barne antolamendu ezberdinak jasotzen dira 19.5EU-ko erdigunerako:

- Ekialdeko bideak Oikiako ekipamendu ezberdinekin zuzenean lotzen du eremua; beraz, gune honetarako sarrera bertatik aurreikusten da eta ondorioz, iparraldean kokatuko litzateke etxebizitza eraikina.
- Aurreikusitako etxebizitza eraikinaren eta ekialdeko bidearen artean geratzen den espazioan, beste eraikin bat bertan antolatzea posible litzateke, bai etxebizitzetarako edota ekipamendu erabilerarako. Horretarako, ordea, zuzkiduren hornikuntzari dagokionez, eskolaren eraikinarekin zer egingo den zehaztu beharko da. Hau da:

1. Ekipamenduak bertan kokatu daitezke, eraikina mantendu eta berrerabiliz, bertan beharrezko ikusten diren berrikuntzak nahiz zabalkuntzak egin ondoren.



2. Eraikina bota daiteke, zuzkidura-erabilerarako egoki ez bada ikusten, eta berri bat eraiki ekipamendu ezberdinak bertan kokatzeko. Eraikin berria leku berean edota inguruan kokatu daiteke, azken aukera honekin plazaren eta espazio honen arteko lotura indartuko litzateke.



3. Jarduketa-eremutik kanpo utzi daiteke, eta honela, eraikinarekin egin daitekeenaren erabakia etorkizun baterako utzi; eta eremuan bertan kokatu ekipamendutarako beharreko azalera.



19.4 eremuari dagokionez, ez da bestelako kokapenik proposatu, eremu hori oso egokia bait da bete behar dituen hirigintza eta ingurumen baldintzengatik.

2.4. ALDAKETA PUNTUALEKO PROPOSAMENAK

Hirigintza Arauen aldaketa puntual honek gaur egun indarrean dagoen antolamendu xehatuaren norabide beretik jarraituko du, aldaketa honen helburu nagusia Oikiaren eskakizunetara egokituko den eskolaren egikaritzea baita.

Bestalde, Lurzoru Legearen aldaketa dela eta, Oikiako hiri-area osatzen duten beste jarduketa eremuak eguneratu dira, hala nola, berdeguneen eta espazio libreen gutxieneko azalerak, etxebizitza babestuen estandarrak, etab. Honela, eraikita eta finkatuta dagoen hiriaren zuzkidura-lurzorua bermatu nahi da, eta, ondorioz, hiri-kalitatea mantendu, bertako herritarren bizi-kalitateari kalterik egin gabe.

Oro har, aurreikusten diren esku-hartzeekin Oikiako auzoaren hazkuntza eta eraikitakoaren finkatze egokia bermatu nahi dira.

Era honetan, mugikortasunari dagokionez, bide-sarearen egituraketa berri bat antolatu da. Honen egikaritzea HAKo jarduketa-eremu ezberdinen egikaritzearekin batera izango da, izan ere, Oikiako hiriguneko bide-sarea berrantolatzeko, jarduketa-eremuek beraientzako beharrezko dituzten azpiegiturak eta zerbitzuak aprobetxatuko dira.


Bestalde, ekipamenduak berrantolatu dira; alde batetik, eskolaren erabilera lekuz aldatu da, hiri-arearen hegoaldera eraman da; beste alde batetik, berau zegoen gunean beste erabilerako ekipamendu bat (edo batzuk) aurreikusi da (dira). Honela, zuzkidura erabilera Oikiako hirigunean zehar zabaltzeko da, eta honekin batera, ekipamendu guztiak lotzen dituen ardatza sortu. Bide honek, beraz, oinezkoentzako mugikortasun egokia bermatu beharko du.

Aurreikusten den etxebizitza hazkuntzaren dentsitatea zehazterako orduan, hirigintza-eraikigarritasunerako gutxienekoak diren neurriak bete dira, bai Lurzoru Legeko eta baita hau garatzen duten premiazko neurrien Dekretuko 77. eta 17. artikuluen arabera, hurrenez hurren. Honela, eraiki daitekeen sabaiko metro karratuko neurria mugatua

geratzen da, eta beraz, etxebizitza kopurua babes bereziko legeriaren eta bestelako irizpideen baitan geratuko da.

Oro har, antolatu diren etxebizitzaren tipologia bloke irekikoa da, eta sotoa eta bi solairurekin egituratuko dira. Hauen luzera zaindu beharreko irizpidea izango da, honela, paisaiarekiko harremana ez dute oztopatuko, eta, era berean, urrutiko ikuspegietatik ez dute hesi bat sortaraziko.





Ondoren 19.4 eta 19.5 eremuetako proposamena jasotzen da, gainontzeko aldaketa guztiak araudiari dagozkion egokitzapenak besterik ez dira:

➤ 19.4. E.U. eskola ekipamendua

Lurzati honen antolaketa xehatuak Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ezarritako baldintzak eta eskakizunak bete beharko ditu. Honez gain, Zumaia Udalaren eskumena da eremu hau bere ingurunean txertatzea, eta beraz, gutxieneko antolamendurako baldintzak ezartzea, hots, antolaketa orokorra zehaztea.

Honela, eskola-ekipamendua kokatzen den lurzatirako sarrera-nagusiaren kokapena eremuaren iparraldean aurreikusten da, ipar-mendebaldeko eta hego-ekialdeko bideak, hein batean behintzat, bere horretan utzi nahi baitira.

Lurzatiko sarreraren ingurua, eta batez ere Ipar-ekialdean jada egikaritua dagoen bidea, aparkalekuz eta oinezkoentzako ibilbidez hornituko dira.

➤ **19.5. E.U. babes publikoko etxebizitzak + ekipamenduak**

Herri-bilbearen kohesioa lortzea xedetzat hartuta, Oikiako hiri-arearen erdian hutsik geratzen den lurzatia urbanizatu nahi da. Esku-hartze honekin auzotarren gutxieneko zuzkidura eskaera bete nahi da, baita, etxebizitzaren arazoaren aurrean, babes publikodun etxebizitzak eskaini ere.

Eremua antolatzerako orduan, kontuan hartzen da bai auzoan duen kokapena baita auzotarren gutxieneko zuzkiduren hornitzea ere.

Honela, lurzati hau herri-gunearen erdian kokatzen da, eta beraz, auzoko ekipamendu ezberdinetatik hurbil aurkitzen da, batez ere, Oikiako plazatik gertu. Gune hauen arteko komunikazioa 19.5 eremuaren ekialdean kokatzen den bidearen bitartez lortzen da. Auzoarentzat aurreikusitako errepide-sarearen arabera, 19.1 eta 19.2 eremuak egikaritu ondoren, bide honen izaera bigarren mailakoa izatera pasako da, herri-gunearen errepide-sare nagusia egituratua geratuko baita. Beraz, autoentzako erabilera murriztuko da bide honetan eta oinezko ibilbide gisako izaera hartuko du.

Honez gain, Oikiako plazaren eta eremu honen arteko loturan, bertako herri eskola kokatzen da. Hau lekuz aldatzean erabilerarik gabe geratzen da, eta kontuan hartuz ekipamendu gehiago ezarri nahi direla, 19.5 Euren hiri-antolamenduko proposamenetan aintzat hartuko da eraikinaren izatea.

2.5. EGIKARITZEKO FASEAK

Hirigintza dokumentuak jasotzen duen bezela, xehetasun azterketa bat egingo da 19 HA-ko egikaritze unitate bakoitzerako.

2.6. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Herritarrek parte hartu ahal izango dute lanak jendaurrean jartzen direnean euren fase edo etapa desberdinetan, hau da, Hasierako Onespeneko eta Behin-behineko Onespeneko dokumentuak jendaurrean jartzen direnean.

3. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Erreferentziako dokumentuak eskatu bezela, Urola kostako Lurraldearen zatiko plana eta Agenda 21 aztertu dira eta ez dira bateraezintasunik aurkitu aldaketa puntualarekin.

4. ALDAKETA PUNTUALAREN ERAGINPEKO EREMUAREN DIAGNOSTIKOA

Ingurumen-diagnostikoa egiteko erabilitako metodologiak bi zati batzen ditu, bata gabinete lana (bibliografia, katalogoak, ikerketak, argazkiak, e.a. aztertuz. Bibliografia atalean aurkitzen dira berauek), eta bestea, behaketa bidez 'landa-lana', alor tematikoaren arabera.

Aztertutako eremuak 19.4 eta 19.5 dira, eremu hauetan egingo bait dira 4.aldaketa puntualeko txostenak jasotzen dituen urbanizazio lanak. Gainontzeko eremuetan araudiari dagozkion egokitzapenak besterik ez dira, ingurumenean eragin esanguratsurik ez dutelarik.

4.1. ALDERDI GEOFISIKOAK

4.1.1. Geologia eta Geomorfologia

Aztergai den eremua “prelitoraleko erliebeak” ingurune morfodinamikoan kokatzen da.

Geologikoki, “San Sebastián”-en unitatearen barruan integratzen da eta materialak Kareharri ezpuruak eta kalkarenitak dira, Goiko Kretazikokoak.

Alteratutako eta kontsolidatu gabeko geruzak (erregolitoa), 0.5 m eta m 1 arteko lodiera dauka. Geruza hau aldatu gabeko arroka solidoaren gainean kokatzen da eta arroka zatiz, mineral pikorrez eta gainazaleko edozein sedimentuz osatua dago. Lurzorua materia organikoa eta landareen sustraiak eusteko gai den erregolitoa da.

Kanpoko lanean, ez zen ohartu inolako prozesu aktiborik eta eremua ez du bat egiten geologiko interesdun puntuekin edo gunearekin.

EAEko mapa geoteknikoaren arabera (iturria: Eusko Jaurlaritza), baldintzak geoteknikoak aldekoak dira aztertzen ari garen eremuan.

4.1.2. Hidrogeologia

Aztergai den eremua ez da integratzen inolako unitate hidrogeologikoarekin.

Iragazkortasuna eta akuiferoen urrakortasuna oso txikiak dira.

Ur-puntuei dagokienez, kontsultatutako iturrien arabera (www.geo.euskadi.net) ez dago bat bera ere aztergai den eremuan.

4.1.3. Edafologia

EAEko lurzorua maparen arabera (iturria: Eusko Jaurlaritza), aztergai den eremuan dauden ezaugarri edafologikoei dagokienez, lursorua kanbisol eutrikoa da.

19.4 eremuak nekazal erabilera-gaitasuna du eta egun belardi bezela erabiltzen da.



19.4 eremua

19.5 eremua-ren mendebaldea urbanizatua dago eta gainontzekoa berdegune interstizial bat da, nekazal baliorik gabea.



19.5 eremua

4.1.4. Gainazaleko Hidrologia eta Sare Hidrologikoaren Kalitatea

Aztergai den eremuaren sare hidrologikoa Urola Unitate Hidrologikokoa da. Urola Unitate Hidrologikoaren azalera osoa 342,19 km²-koa da eta horietatik 158,65 km² aztergai den eremuan igarotzen den Urola ibaia ardatz nagusi duen gainazaleko arroakoak dira.

Aztertutako eremuan, ez dago ez ibairik, ezta errekarik ere.

4.1.5. Lurzorua Kutsa dezaketen Jardueren Kokalekuak

IHOBE, Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa, S.A.-k egindako lanaren ondorioz, “Lurzorua kutsa dezaketen jardueren kokalekuen inbentarioan” daude jasota (IHOBEri egindako kontsulta 2008/06/19an) lurzorua kutsa dezaketen jardueren eragina izan zezaketen kokalekuak, hain zuzen ere, osasunerako, ingurumenerako edo kokaleku horietan etorkizunean jartzen diren azpiegituretarako arriskua sortzerainoko eragina izan

zezaketenak. Inbentarioan “kutsatuta egon litezkeen” lurzoruak daude jasota, beraz, ez dago baieztatuta lurzoru horietan kutsadura dagoenik.

Inbentarioaren arabera, aztertutako eremuak ez du bategiten inolako kutsatuta egon litekeen kokalekurekin.

4.2. NATURA-ALDERDIAK

4.2.1. Landaredia

19.4 eremuko landaredia sega-belardiaz osatua dago. Oso unitate arrunta da ingurune honetan eta kantauri isurialdean orokorrean. 19.5 eremuan berdegune interstizial bakarra gelditzen da.




Landaredia

Ez da antzeman interesdun edo legez babestutako landare-espezierik.

4.2.2. Interes komunitarioko habitatak

EAEko habitaten mapak (Eusko Jaurlaritza, 2009) intereseko habitat-mota bat jasotzen du aztertzen ari garen eremuan: 6510 Altitude baxuetako segabelardi txiroak.



EAEko intereseko habitaten maparen laburpena (Eusko Jaurlaritza, 2009)



Sega-belardi aztertutako eremuan

Belardi horrek oso interes gutxi dauka, espezie nitrofiloa (*Rumex* spp., *Urtica dioica*) eta landatutakoa (*Lolium* sp.) asko ikusten direlako.

4.2.3. Fauna

Faunaren honako balorazio hau egiteko landa-lana eta berrikuspen bibliografikoa konbinatu dira. Eremuan dagoen fauna gehienak atlantikoan eta Erdialdeko Europan du jatorria Mediterraneoko espezieak ere badauden arren.

Ikerketa-eremua inguru antropizatuan kokatzen denez, faunako komunitatea pobrea eta arrunta da, batez ere espezie ubikistak osatutakoa.

4.2.4. ESPAZIO BABESTUAK

Aztertzen ari garen eremua ez dator bat inolako espazio babesturekin.

4.3. ESTETIKA ETA KULTUR ALDERDIAK

4.3.1. Paisaia

Ibaiko geomorfologia du antolamendu-eremuak nagusiki, eta kokapen fisiografikoaz, hegal eta ibaiarte muinotsuez eta erliebe malkartsua duen ingurune batez osatuta dago; dena Aizarnazabal arro-bisualaren barruan. Paisaia unitatea eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza da.

Hainbat elementu antropogenikoak daude inguruetan: etxebizitzak, hilerria, bideak, industriak, errepideak. Oro har, elementu paisajistiko nabarmengarrienak Urola ibaia eta bere itsasadarra dira.



19.5 eta 19.4-tik Urola ibaia eta Artadiko Eliza ikusten dira

Aizarnazabal arro-bisuala ez dago katalogatua “Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren” Aurreproiektuan.

4.3.2. Ondare arkeologikoa eta historiko-arkitektonikoa

Aztertzen ari garen eremuak ez du Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak babestutako edo zerrendetako elementurik.

Aztertzen ari garen eremuak ez du herriko plangintzak babestutako elementurik.

4.4. GIZA HABITATA

Zumaia Gipuzkoako iparmendebaldean kokatuta dago, itsasoa eta Donostialdeak mugatuta ipar eta ekialdetik, Deba Behea eta Deba Garaiak mendebaldetik eta Tolosaldeak hegoaldeak. Udalerriaren hedadura 1.075 ha da.

Populazioari dagokionez, Zumaia ia 9300 biztanle ditu. Hurrengo taulan ikusten da azken urteko biztanle kopuruaren igoera:

Urteak	1981	1991	2001	2007	2009
Gizonak	3955	4086	4276	4487	4615
Emakumeak	3885	4076	4251	4532	4646
Erabatekoa	7840	8162	8527	9019	9261

Evolución de la población en Zumaia (Fuente: EUSTAT)

Biztanleen gehiengoa hiri-nukleoan kontzentratzen da, baina auzo sakabanatuak daude: San Miguel De Artadi eta Oikia handienak dira.

Garraio-sareei dagokienez, bi komunikazio-ardatz garrantzitsuak guruzatzen dira Zumaian: Donostia - Bilbo eta Zumaia - Zumarraga. Errepide nagusiei dagokienez, N-634a eta AP-8a pasatzen dira Zumaiaitik.


4.5. EGOERA AKUSTIKOA

Zumaiako Udalak Udalerriaren zonifikazio akustikoa egin du. Zonifikazio horren arabera (ikus beheko irudia), 19.5 EU bizitegi eremu baten barruan gelditzen da eta 19.4 EU-a bizitegi eremu baten ondoan. Eremu honen kalitate xedeak L_d/Leq 65 dB(A) eta L_n 55 dB(A) dira.



Zumaiako zonifikazio akustikoa

Gipuzkoako Foru Aldunduen mapa estrategikoaren arabera, aztertutako eremuen soinu maila 55 eta 60 artekoa da. Beraz, eremu berri hauek soinu kalitate xedeak betetzen ditu eta egokiak dira bizitegiak bai eskolak bertan egoteko.



4.6. ARRISKU NATURALAK

Arrisku naturaleko mapa egiterako orduan Herri-babeseko (uholde, sismizitatea, Baso-Sute eta arrisku teknologikoekin lotura duten arriskuak) eta ingurune-izaerako arriskuak begiesten dira.

Herri-babesaren arriskuak Eusko Jaurlaritzako Larrialdi Arretako zuzendaritzaren erantzuna jasotzen denean jorratuko da.

Ingurune-izaeraren arriskuei dagokienez (potentzialki kutsatutako lurzoruen presentzia, zaratak, hegal-ezegonkortasunak ondorioztatutako arazoak), 19.5 eta 19.4 eremuek ez dute mota horietako arazorik.

4.7. BIBLIOGRAFIA

AAC. 2009. ZUMAIKO UDALAREN INGURUNE-ZARATAREN MAPA

EEE, EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA: Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa Geologikoa E 1/25.000, Orriak 63-I Ondarroa.

EEE, EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA: Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa Geologikoa E 1/25.000.

EEE, EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA: Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa Hidrogeologikoa E 1/100.000.

EUROPAKO KOMUNITATEAK. 2000. Natura 2000 espazioen kudeaketa: habitatei buruzko 92/43/CEE Direktibako 6. artikuluko xedapenak. <http://europa.eu.int>.

EUSKO JAURLARITZA. Baliabide geografikoei buruzko web orria: <http://www.geoeuskadi.net>

EUSKO JAURLARITZA. GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA. 2001. Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa Hidrologikoa, Eskala 1:150.000. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA. KULTUR ONDAREAREN ZUZENDARITZA. EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROA.

EUSKO JAURLARITZA. LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA. 2000. Euskal Autonomia Erkidegoko Zarata Mapa. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA. LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA. Ingurumenari buruzko web orria: <http://www.euskadi.net>

EUSKO JAURLARITZA. LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN SAILA. 1999. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde

Arloko Plana Isurialde Kantauriarra-Gipuzkoa. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA. LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN SAILA. 2000. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Kartografia Sistema. CDa.

GALÁN, C. 1997. Euskal Autonomia Erkidegoko kiroptero-fauna. Munibe (Natur Zientziak), 49: 77-100.

IHOBE, INGURUMEN KUDEAKETARAKO SOZIJETATE PUBLIKOA. Lurzoruaren Kalitatearen Informazio Sistema

INGURUMEN MINISTERIOA. 2005. Espainiako interes komunitarioko habitat-motak. Oinarrizko gida. INGURUMEN MINISTERIOA. Madril

PLEGUEZUELOS, J. M.; MÁRQUEZ, R. & LIZANA, M. (eds). 2002. Espainiako anfibio eta narrastien atlasa eta Liburu Gorria. Ingurumen Ministerioa. Madril.

5. AUKERA EZBERDINEN INGURUMEN AZTERKETA

“0” alternatiba edo ez esku hartzekoa

“0” alternatiba edo “ez esku hartzekoa” egungo egoerari eustea izango litzateke, laburbilduta.

2008ko maiatzaren 28ko udal txosten teknikoaren arabera, Oikiako auzoko eskola kokatzen den eraikina zaharkitua dago, alde batetik segurtasuna bermatzeko gutxieneko neurriak ez dituelako betetzen eta beste alde batetik, gela gabezia, hau da, espazio falta dagoelako. Arazo honi, eskolak jolasgunerik ez duela atxiki behar zaio.

Txosten honen ondorioetan garbi azaltzen da eskola berria eraikitzekeo presa eta premia larria dagoela.

Proposatutako antolamenduen analisi konparatiboa

Dokumentu urbanistikoan deskribatzen den moduan, eskola ekipamendua kokatzeko 19.4a ez den beste kokapenik ez da begiesten eremu honen egokitasunagatik (urbanistikoa eta ingurune egokitasunagatik).

19.5ari dagokionez barne antolamendu aukera desberdinak maneiatzen dira. Aukera hauek egungo eskola eraikinarekin etorkizunaren mendean daude. Proposatu diren barne antolamendu ezberdinek ingurumenari modu beretsuan eragiten diote, ondorioz aukera guztiak egokiak dira.

6. ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

6.1. PLANAREN HELBURUEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA

Atal honetan Zumaiaiko Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualean agertzen diren proposamenek ingurumenarekiko dauden helburuak betetzen dituzten ala ez aztertzea du helburu.

Hirigintza txostenak ez du propio ingurumen helbururik jasotzen, hauek txostenean zehar ikutzen dira: oinezkoentzako mugikortasun egokia bermatu, hiri bilbe trinko bat diseinatu, bizitzeko esparru eroso bat eratu berdegune eta aparkalekuekin. Hau da, Oikia-ko hiri-ingurumen kalitatea hobetzea lortzea nahi du eta jasotako hirigintza jarduerak helburu hori gautzea lortuko dutela esan daiteke.

6.2. ZUMAIAKO HIRIGINTZA ARAUEN 4. ALDAKETA PUNTUALEKO JARDUKETEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA

Metodologia

Eraginen azterketa Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren Eranskinean jasotako aurkibideari jarraituz egin da.

Behin Zumaiako Hirigintza Arauen 4. aldaketa puntualatik sortutako jarduketek ondorioz izaten diren eraginak identifikatuta, fasearen arabera (lanak - ustiapena), zeinuaren arabera (positiboa - negatiboa), iraupenaren arabera (aldi batekoa - iraunkorra), sinergiaren arabera (sinplea - metatzailerik - sinergiazkoa), ekintza-motaren arabera (zuzena - zeharkakoa), itzulgarritasunaren arabera (itzulgarria - itzulezina), lehengoratzeko gaitasunaren arabera (lehengoragarria - ezin lehengoratuzkoa), agerpen-maiztasunaren arabera (iraunkorra - irregularra) eta ematen zaion izaeraren arabera (bateragarria, moderatua, larria eta kritikoa) sailkatzen dira, honako definizio hau egiten duen 1131/88 Errege Dekretuko xedapenei jarraituz:

- **Bateragarria:** jarduera amaitu bezain laster lehengoratzen dena eta jardun babesgarrikerik edo zuzentzailerik behar ez duena.
- **Moderatua:** lehengoratzeko jardun babesgarri edo zuzentzaile intentsiborik behar ez duena eta hasierako ingurumen-baldintzak lortzeko denbora pixka bat behar duena.
- **Larria:** ingurunea lehengoratzeko babes-neurriak edo neurri zuzentzaileak egokitzea eskatzen duena eta, neurri horiek hartuta ere, lehengoratzeko denbora asko behar duena.
- **Kritikoa:** atalase onargarritik gora dagoena. Etengabe eragiten du ingurumen-baldintzen kalitatea galtzea, lehengoratzeko aukerarik gabe, ezta babes-neurriak edo neurri zuzentzaileak hartuta ere. Horregatik, kritikotzat jotzen diren jarduketak birplanteatu egin behar dira eragina maila onargarriaraino murrizteko.

Azkenik, identifikatu eta karakterizatutako eraginen balorazio globala egiten da eta honela sailkatzen dira: **ez esanguratsua**, **ez oso esanguratsua**, **esanguratsua** eta **oso esanguratsua**; garatutako jarduketaren magnitudearen eta eragina izan duen aldagaiaren arteko elkarreraginean oinarritzen da balorazioa eta kontuan hartzen du dokumentu honetan proposatutako Neurri Zuzentzaileen, Babesgarrien eta Prebentziozkoen eta Ikuskapen Programaren aplikazioarekin sortzen den eraginen magnitudearen murrizketa.

Zumaiako 4.aldaketa puntualeko ingurumen aldaketa esanguratsuenak 19.4 eta 19.5 eremuetan egingo dira, hirigintza txostenak jasotzen dituen beste aldaketa guztiak araudiari dagozkion egokitzapenak besterik ez dira. Horren ondorioz hurrengo azterketa eremu horietan zentratuko da batik bat.

6.2.1.1. Natura-baliabideen galera

Baliabide naturalistikoen artean, garapen berriko eremuetako landaredia eta fauna barne hartzen dira.

Landarediari dagokionez, sega belardi arrunta aurkitzen da 19.4 eremuan, balio botanikorik gabekoa. Hala ere, sega belardi hori, batasunaren intereseko habitata dira. 19.5 eremuan berdegune-interstizial bat bakarrik gelditzen da urbanizatu gabe.

Obrak egitean landaredia eta batasunaren intereseko habitata ezabatuko da. Obrak egitean sortuko den inpaktu hori negatiboa, iraunkorra, sinergikoa, zuzena, itzulgarria, etengabea, eta **bateragarria** izango da, bere egiten den eta neurri zuzentzaileak esleitzen zaizkion inpaktua baita. Inpaktuaren magnitudea **ez da esanguratsua**; ezabatzen den landarediak ez du interesik.

Faunari dagokionez, 19.5 eta 19.4 hiri-areak inguru antropizatu batean integratzen dira, fauna-espezie arruntak ditu eta habitata ez da berez baliozkotzat jotzen.

Obrak egitean faunarentzako habitataren kalitatea murriztuko da, inpaktu hori negatiboa, iraunkorra, sinplea, zuzena, itzulgarria, berreskuragarria, etengabea, eta **bateragarria** izango da obretan; izatez, bere egiten da eta **ez da esanguratsua**.

Obra fasean ere animaliak ezabatzeko inpaktua sortzen da. Inpaktu hori negatiboa, iraunkorra, sinplea, zeharkakoa, itzulgarria, berreskuragarria, etengabea eta **bateragarria** da. Izatez, inpaktu hori bere egiten da eta ez zaizkio neurri zehatzak esleitzen, eta, gainera, **ez da esanguratsua**, eraginpean egon daitezkeen espezieak komunak eta mugitzeko ahalmen txikikoak baitira –hala nola anfibioak, narrastiak eta mikrougaztunak–.

6.2.1.2. Ingurumenaren arloan sentikorrak diren eremuen gaineko eragina

Oikia 19 eremuaren barruan ez daude ingurumenarekiko eremu sentikorrik. Beraz ez da eraginik identifikatu.

6.2.1.3. Baliabide estetiko – kulturalen gaineko eragina

Paisaia-kalitatearen murrizketa bi faseetan gertatuko da eta eragin negatibo, iraunkor, sinple, itzulgarri, lehengoragarri, jarraitu eta **bateragarria** izango da babes-neurriak ezarri ez zaizkion onartutako eragina delako. Eraginaren balioa **ez esanguratsua** da bi faseetan.

6.2.1.4. Baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien gaineko eragina

Baliabide berriztagarrien edo ez-berriztagarrien barruan sartzen da: ura eta lurzorua. Lurzorua gaineko eragina 6.2.3.8. nekazaritza-produktibitatearen galera idatz-zatian analizatzen da.

Ura

Urbanizazio lanek ez dute Urola ibaiko uraren kalitatearen gainean eragiteko arriskurik.

Ustiapen-fasean ez da identifikatu uraren kalitatearen gaineko eraginik bizitegi-eremuko hondakin-urak proiektatuta dagoen kolektore nagusian jasoko direlako Zumaian dagoen ETAP-eraino.

6.2.1.5. Hondakinen sorkuntza eta kutsaduraren gehikuntza

Lanen fasean sortutako hondakinak lur-soberakinak, obra-hondakinak eta makinak olioak izango dira. Ustiapen-fasean, aldiz, etxeetan sortutako hondakinak izango dira.

Hondakinen sorkuntza lanen fasean gertatuko den eragin negatibo, aldi baterako, sinple, zeharkako, itzulezin, lehengoraezin, jarraitu eta **moderatua** da babes-neurri ez-intentsiboak definitu direlako.

Hondakin asko sortzerik espero ez denez eta haiek behar bezala kudeatzeko neurriak hartuko direnez, eraginaren balioa **ez da esanguratsua** izango.

6.2.1.6. Giza osasunaren gaineko eragina

Urbanizazio lanek sortutako jarduketek giza osasunaren gainean duten eragina *kutsadura akustikoaren eta atmosferikoaren gehikuntzaren* bitartez adieraziko da.

Kutsadura akustikoaren eta atmosferikoaren gehikuntza batik bat lanen fasean gertatuko da eta negatiboa, aldi batekoa, sinplea, zuzena, itzulgarria, lehengoragarria, aldizka agertzen dena, iraupen etenkorrekoa eta **moderatua** da babes-neurri ez-intentsiboak beharko dituelako, esaterako, lanerako eguneko ordutegiak ezartzea eta zaraten araudia betetzea. Halaber, eragin **ez oso esanguratsua** da, aterako den zarata motarengatik.

6.2.1.7. Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Aldaketa puntualak Oikiako ingurumen kalitatea hobetuko du, IEEB-ko 2.2. puntuan azaltzen den bezela.

6.2.1.8. Nekazaritza-produktibitatearen galera

Hirigintza-jarduketan ondorioz, *balio agrologiko handiko lurzoruen murrizketaren* eragina identifikatu da. Balio agrologiko handia duen lurzoru bakarra 19.4 eremuko lursaila izango litzateke, 3.100 m² koa. 19.5 eremuan antropizatuko den lursailak (1890m²-koa), maldatsua da.

Eraginaren balioa ezabatutako azaleraren eta gaur egun udalerrian dagoen antzeko ezaugarriko lurzoruaren azaleraren arteko proportzioaren arabera izango da. Zentzu horretan, lurzoru murrizketa ez da esanguratsua.

Balio agrologiko handiko lurzoruak murriztearen eragina lanen fasean gertatzen da eta eragin negatibo, iraunkor, sinergiazko, zuzen, itzulezin, lehengoraezin, jarraitu eta **bateragarria** da, onartutako eragina delako.

6.2.1.9. Kultura-ondarearen gaineko eragina

Urbanizatuko diren eremuetan ez da aurkitu kultura-ondareko elementurik eta, horregatik, ez da identifikatu eraginik ondare-kultura aldagaiaren gainean.

6.2.1.10. Mugaz gaindiko eragin posibleak

Tokiko jarduketa izanik, ez dira antzeman mugaz gaindiko ingurumen eraginak.

6.2.1.11. Arrisku eratorrien analisia

Arrisku eratorrien artean maldaren ezegonkortasun-arriskua, uholde-arriskua handitzea, etab. aztertzen dira. Oikiako 19 hiri arearen urbanizatze jarduketaren ondorioz ez dira horrelako arazorik sortuko.

6.2.1.12. Ingurumen-eragina definitzeko zailtasunen eta ziurgabetasunen deskripzioa

183/2003 Dekretuak atal espezifikoa du ingurumen-eragina zehazteko orduan egon zitezkeen zailtasunak eta ziurgabetasunak planteatzeko jarduketan zehaztasun-maila plangintzaren hasierako faseetan nahikoa ez dela ulertzen delako.

Oikiako aldaketa puntualaren eraginen zehaztapena eragin guztiak karakterizatu eta baloratu ahal izateko moduko zehaztasun-mailarekin egin da.

6.2.1.13. Eraginen karakterizazioa eta kalifikazioa

Oikiako aldaketa puntualak ingurumen-eraginak sortuko ditu, bai positiboak eta bai negatiboak. Modu honetan baloratu dira identifikatutako ingurumen-eraginak:

Positiboa: *Ingurumen-kalitatearen hobekuntza*

Negatiboa:

- Ez esanguratsua: *Landaredia eta batasunaren intereseko habitaten ezabatzea, Fauna-habitaten kalitatea murriztea, Fauna-espezimenen ezabatze zuzena, Paisaia-kalitatea murriztea, Hondakin-sorkuntza handitzea, Balio agrologiko handiko lurak murriztea*
- Ez oso esanguratsua: *Kutsadura atmosferikoaren eta akustikoaren gehikuntza*
- Esanguratsua: bat ere ez
- Oso esanguratsua: bat ere ez

Lanen fasea Ustiapen-fasea	ERAGINAK	FASEA	ZENUA		IRAUPENA		SINERGIA			EKINTZA- MOTA		ITZULGARRITIA SUNA		LEHENGORAGARRIA RITASUNA		AGERTZE- MAIZTASUNA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA				KONPENTSATZALEAK ETA PREBENTZIOZKOAK ETA				ERAGINAREN BALORAZIOA			
			POSITIBOA	NEGATIBOA	ALDI BATEKOA	IRAUNKORRA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIAZKOA	ZUZENA	ZEHARRAKOAK	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	LEHENGORAGARRIA	LEHENGORAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENKORRA	BATERAGARRIA	MODERATUA	LARRIA	KRITIKOA	EZ ESANGURATSUA	EZ OSO ESANGURATSUA	ESANGURATSUA	OSO ESANGURATSUA				
Aldagaitza	Eragina	LANEN FASEA USTIAPENKOA																													
Alderdi naturalistikoak	Landaredia eta basamaren interseko habitateen ezabatzea	X		X	X			X	X	X	X	X					X			X			X								
	Fauna-habitaten kalitatea murriztea	X			X	X			X	X	X	X	X				X	X		X			X								
Baliabide estetiko eta kulturalak	Fauna-espezimenen ezabatze zuzena	X			X	X				X	X							X			X			X							
	Paisaia-kalitatea murriztea	X		X	X	X			X	X	X						X	X		X											
Giza osasuna	Hondakinak eta kutsaduraren gehikuntza	X		X						X			X					X	X	X			X								
	Kutsadura atmosferikoaren eta akustikoaren gehikuntza	X		X	X				X	X	X									X											
Ingurumen-kalitatea	Ingurumen-kalitatearen hobekuntza	X																	X	X											
Nekazaritza produktibitatea	Balio agrologiko handiko lurak murriztea	X		X	X													X	X												

7. NEURRI BABESGARRI, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA

7.1. INGURUMEN-ERAGINA EBALUATZEAREN ONDORIOZKO NEURRI ZUZENTZAILEEN IDENTIFIKAZIOA PLANGINTZAZ GAINEKO MAILAN

Oikia eremuan ez dira identifikatu ingurumen-eraginaren ebaluazioaren ondoriozko neurri zuzentzaileak plangintzaz gaineko mailetan.

7.2. PLANAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA

IEEB Azterlanak ez du beharrezkotzat jotzen hirigintza txostenaren helburuak eta estrategiak egokitzea.

7.3. NEURRI BABESGARRI, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEAK

Ondoren identifikatzen diren neurriak, Zumaiako Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualaren txostenak jaso beharko lituzke neurrien benetako ezarpena bermatzeko.

7.3.1. Egikaritzea-Fasea: Obra Aurrekoa

7.3.1.1. Mugapena

Lanek eragingo dieten eremu guztiak mugatuko dira inguruko lurretan beharrezkoa ez den eraginik izan ez dadin. Aldiro-aldiri egiaztatuko da mugapena egoera onean dagoela eta bere egitekoa betetzen duela.

7.3.1.2. Hondakinen kudeaketa

Lanak egiten hasi aurretik kontratistak “Hondakinen Kudeaketa Programa” aurkeztu behar dio Obra-zuzendaritzari. Kudeaketa Programak barruko kudeaketa-jarraibideak (Garbigunearen kokapena, hondakin-mota bakoitza obran bertan bildu eta biltegitratzeko neurriak, erantzukizunak, etab.) eta kanpoko kudeaketa-jarraibideak (sortutako hondakin bakoitzaren helmuga, Kudeatzaile Baimendua, jasotze-erregistroak, etab.) jasoko ditu ondoren aipatzen diren jarraibideen arabera eta indarreko araudia betez (eraikuntzako eta eraisketako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua).

- a) “Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea” - Hondakinak murrizteko ahalegina egingo da. Horretarako, ez da kontsumituko behar ez dena, beharrezkoak ez diren enbalajeak baztertu egingo dira, behin baino gehiagotan erabil daitezkeen eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dituzten produktuak aukeratuko dira. Bestalde, produktu berrerabilgarriak edo itzulgarriak eta birkargagarriak erabiliko dira. Bilketa selektiboa egiteko aukera ematen duten produktuak aukeratuko dira eta ahal den neurrian, material birziklatuekin fabrikatutakoak.
- b) “Hondakin arriskutsuak” - Hondakin arriskutsuei dagokien guztian, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea eta EAEko olio erabilien kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretua betez jokatu da.

Hondakin arriskutsuak obran bertan behar bezala biltzeko edukiontzi egokiak jarriko dira hondakin-mota desberdinak aukeratuta, hau da, nahastu gabe biltegitratzeko moduan eta isurketak izanez gero segurtasun-baldintzetan. Edukiontziak eremu jakin batean edo “Garbigune” batean egongo dira, behar duten errotuluarekin. Errotuluan honako hauek adieraziko dira gutxienez: hondakin-mota, kodea, biltegitratzen hasitako data eta jasoko dituen Kudeatzaile Baimendua. Edukiontzi bat jarriko da sortzen ari den hondakin arriskutsu

bakoitzarentzako: olioak, erabilitako olio-iragazkiak, lur eta zapi kutsatuak, ontziki huts kutsatuak, bateriak...

Bilketa-gunea ezusteko isurketa edo ihesen aurrean segurtasuna bermatuko duen kubeta, kutxeta edo beste edozein sistemaren gainean jarriko da.

- c) “Ezusteko isurketa” - Gai toxiko edo arriskutsuen ezusteko isurketaren bat izaten bada lurzoru iragazkorren gainean, isurketa kutsatutako lurrekin batera bilduko da ahalik eta denbora laburrenean, iragazteak saihesteko. Lur kutsatuak Kudeatzaile Baimenduak kudeatuko ditu.
- d) “Zaborra” - Obra ingurunea zaborrik gabe edukitzeko behar diren zaborrontzi guztiak jarriko dira langileek erabiltzeko.

7.3.1.3. Landare-lurra

Lanen eragina izan dezaketen landare-lurraren geruzak galtzea saihesteko eta obra bereko edo inguruko beste bateko lehengoratzeko lanetan berrerabiltzeko xedearekin lehen geruza edafikoa kenduko da indusketa-lurrekin kutsatu gabe. Landare-lurra 2 m baino gutxiagoko piletan edukiko da, gainazaleko isurketa-uren edo sastraka- edo zuhaitz-landareen eraginpean ez dauden eremuetatik kanpo. Lur-pilak hilabete baino denbora gehiagoz edukitzen badira, inguruneko espezieak ereingo dira higaduraren eraginez lurra gal ez dadin.

7.3.1.4. Lur-soberakinak

Lanen fasean sortzen diren lur-soberakinak, ahal izanez gero, lur-premia duen inguruko beste obra batean birkokatuko dira. Aukera hori ez badago, lurrak zabortegi baimendu batera eramango dira eta, edozein kasutan, indarrean dagoen legeria beteko da.

7.3.1.5. Makineriaren mantentzea

Makinariaren mantentzea beharrezkoa izango balitz, eremu iragazgaitzetan eta lurzorua eta isurketa-urak kutsatzea saihesteko egokitutakoetan egingo da.

7.3.2. **Egikaritza-fasea: lanen fasea**

7.3.2.1. Kultura Ondarea

Lurrak mugitzean arkeologia-hondarren aztarnak sortuko balira, lanak bertan behera utzi eta berehala jakinarazi beharko litzaioke Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari. Kultura Sailak erabakiko du zer neurri hartu behar diren.

7.3.2.2. Giza habitata

Oikia auzotako biztanleen atsedena eta bakea errespetatuko dituzten eguneko lan-ordutegiak beteko dira. Ordutegi hori zaratarik gabeko obra-jarduera jakin batzuetarako bakarrik handitu ahal izango da.

Airearen kalitatea murriztuko luketen partikula esekien presentzia saihesteko helburuarekin obrako kamioiak edota makinak igarotzen diren bideetan aldizkako ureztatzeak egingo dira. Ureztatzeen maiztasuna aldatu egingo da tokiko meteorologiaren eta obra-jardueraren intentsitatearen arabera. Maizago egingo dira euri gutxiko eta haize zakarreko aldietan.

Makinek sortutako zarata eta isurketa atmosferikoak ahalik eta txikienak izan daitezen, obran lanean ari diren makina guztiek Ibilgailuen Azterketa Teknikoa eguneratuta dutela egiaztatuko da prebentziozko neurri gisa, motorrak, isilgailuak eta abar, behar bezala doituta dituztela egiaztatuz. Gainera, aire zabalean erabiltzen diren makinek ingurunean sortzen dituzten zaratak arautzen dituen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretua betetzen dela bermatu beharko da eta bibrazioei dagokienez, UNE 22-381-93 arauak xedatutako mugak bete beharko dira.

Lanak amaitzen direnean, garbiketa-kanpaina egingo da eragin zuzena izan duten eremuetan eta horien inguruan.

7.4. PROPOSATUTAKO NEURRIEN KOSTUAREN ZENBATESPENA

Proposatutako neurriek ez dute behar aurrekontuko partida espezifikorik lanen faseko jardun egokiak direlako.

7.5. PROPOSATUTAKO NEURRIEN BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK

Ingurumen Azterlanean jasotako neurri zuzentzaileak betetzen direla bermatzeko nahikoa da Ikuskapen Programa betetzea, adierazle berezirik definitu beharrik ez dago.

8. IKUSKAPEN-PROGRAMA

Proposatutako kontrolaren **helburua** IEEB Azterlanean jasotako neurriak modu eraginkorrean aplikatzea da.

Honako **ingurumen-aldagai** hauei egingo zaie jarraipena: zarata, hondakinak eta soberakinak, mugapena eta kultura ondarea.

Gainbegiraketa Programa bi multzo nagusitan egituratzen da:

- KONTROL ZIURTAGIRIAK
- GAINBEGIRAKETA PROGRAMA GARATZEAZ ARDURATUKO DEN ORGANISMOA

8.1. KONTROL-ZIURTAGIRIAK

“KONTROL ZIURTAGIRIEK” Zumaiako Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualaren ondoriozko neurri zuzentzaileak txertatzeko eta gauzatzeko jarraipen-fitxak barne hartzen dituzte.

8.1.1. Obra aurreko eta obra-faseari dagozkion kontrol-ziurtagiriak

Ingurumen kalitatea kontrolatzeko akta	
Eragiketa aurreko eta obrako fasea	Data
Punto de Control 1 - IEEB azterlanean seinalatutako hurrengo neurriak kontuan izan dira? 1. Kontrolpuntua -	
<input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Mugapena <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Hondakinen-Kudeaketa Programa <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Landare lurra <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Lur-soberakinei buruzko neurriak <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Makinen mantenua <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> kultur-ondarea <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Giza-habitataren kalitatea <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Bai <input style="width: 20px; height: 15px; margin-left: 20px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Ok <input style="width: 20px; height: 15px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Ez <input style="width: 20px; height: 15px; margin-left: 20px; margin-right: 5px;" type="checkbox"/> Neurriak begiestea	

Ingurumen kalitatea kontrolatzeko akta	
Eragiketa aurreko eta obrako fasea	Data
Zumaiako udalaren egiaztapen-erregistroalaren partetik frogantza erregistroa 1. Kontrolpuntua	
Ziurtatzen dut Zumaiako Udalaren Hirigintza Sailak aurreeragiketa eta obra-faserako proposatutako neurrien egite zuzena bete dela. Sinatuta; Zumaiako Udala	

8.2. IKUSKAPEN-PROGRAMAREN GARAPENAZ ARDURATZEN DEN UDAL-ERAKUNDEA

Zumaiako Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlana Ikuskatzeko Programaren garapenaz arduratzen den udal-erakundea, Zumaiako udaleko Hirigintza Saila da.

9. LABURPENA

Zumaiako Hirigintza Arauen 4. Aldaketa Puntuala, Oikia 19 Hiri Area-ri dagokiona, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren prozedura bete behar du indarrean dagoen ingurumen legediaren arabera. Prozedura betetzeko egindako azterlanak ingurumenarekin zerikusia duen edukiak jasotzen ditu: gainontzeko planekiko bateragarritasuna, aukera ezberdinen analisia, inpaktuen identifikazioa eta sortuko diren inpaktuen eragina txikitzeko neurri zuzentzaileen definizioa.

Egungo Zumaiako Arauen 4. aldaketa, Oikia-ko beharrezko eskola ekipamendua eraikitzeko lursail berri bat berklasifikatu beharra dagoelako egin da. Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren arabera eskolaren beharrei erantzuteko lursaila 3.000 m²koa izan behar du eta egungo Arauetan aurreikusitako lekuak, 1.586 m²ko azalera duenak, ez ditu beharrezko neurri hauek betetzen.

Bide batez, Oikia-ko erdigunean aurreikusitako eremua hutsik geratzen denez, herribilbearen kohesioa lortzea helburu hartuta, lur-eremu hau babes publikoko etxebizitzaren bidez urbanizatzea proposatzen da eta honez gain, Oikiako auzotarren behar ezberdinak bete asmoz, ekipamendu erabilerako lokalak ere aurreikusten dira.



19.4 eskola ekipamendu berria egingo da

19.5 babes publikoko etxebizitzaren eta auzotarren behar ezberdinak bete asmoz, ekipamendu erabilerako lokalak

Urbanizatuko diren lursailek (19.4 eta 19.5) ez dute ingurumen balio ez baldintzatzaile esanguratsurik, hau da bertan ez dira aurkitzen babestuta dauden landare ez animalirik, errekarik, eremu sentikorrik, etab. Eremu berri hauek soinu kalitate xedeak betetzen dituzte eta egokiak dira bizitegiak bai eskolak bertan egoteko. Ondorioz, identifikatu diren ingurumen inpaktu denak “ez esanguratsu” bezela baloratu dira.

Neurri zuzentzaileei dagokienez, obra aldian aplikatzeko neurri batzu definitu dira. Neurri hauek, hirigintza txostenean jasoko dira eta Zumaia Udaletxea izango da benetan egiten direla kontrolatzeaz arduratuko dena.